

## **BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK:**

Gure **zerbitzua bezeroengana helarazteko** hainbat influenzerrekin jarriko gara harremanetan, esate baterako María Pomborekin. Hauek gure look-ak promozionatuko dituzte beraien sare sozialetan publizitatea eginez. Beste hainbat aplikazioetan ere publizitatea egingo dugu gure aplikazioa modu laburrean azaltzen dituzten bideoak ipiniz.

Gure **bezero segmentuarekin** komunikatzeko hainbat metodo erabiliko ditugu; alde batetik, aplikazioaren bidez, eta beste aldetik, gure webgunean dagoen Gmail edo telefono zenbakia erabiliz elkar komunikatzeko gai izango gara eta horrela zuen arazoak konpon ditzakegu.

Gure enpresan honako kanal hauek bereiz ditzakegu: **komunikazio-kanalak, banaketa-kanalak eta salmenta-kanalak.**

Aurretik aipaturiko hiru kanal hauek Interneten bidez baliatuko dira. Hau da, guk eskaintzen dugun aplikazioa Play Store eta App Store aplikazioetan eskuragarri egongo da bertatik instalatu ahal izateko. Gure webgunean, gure enpresak sortutako aplikazioak eskaintzen dituen zerbitzuen informazioa eta gurekin harremanetan jartzeko kontaktuak egongo dira. Webgunean eta gure app-a instalatzeko erabili dituzun aplikazioetan gure zerbitzua balioesteko eta zuen iritziak emateko eskuragarri egongo den atala eskainiko da.